PAULAREN PROMESA

LAGUNTZEA, BOKAZIO BATEN JATORRIA



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Izenburua: Paularen promesa. Laguntzea, bokazio baten jatorria

Egilea: Foruzaingoa (Óscar Azparrenek adimen artifizialaren ikusizko laguntzarekin sortutako edukia)


Lankidetza: Hezkuntza Departamentua
Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua

Argitaratzailea: Nafarroako Gobernua

LG NA 483-2026

Haurtzarotik, Paula eta Alain banaezinak ziren. Iruñean bizi ziren, ikastetxe berera joaten ziren eta ia dena partekatzen zuten: ikastetxerako bidea, jolasaldiak, barreak, haserreak eta ametsak. Paulari izugarri gustatzen zitzaizkion ekintza jolasak. Beti esaten zuen, handitan, polizia izanen zela.











Jolastokian polizia eta detektibetara jolasten ziren.



Eta horrela igaro ziren urteak; elkarren ondoan koskortu ziren. Hezur eta mami zirelako. Une bakoitzarekin eta haurtzaro eta gaztaro ederrekin gozatuz.

Urteak igaro ziren; Paula eta Alain ikasgela berera joan ziren beti ere.

Haur askori bezala, Paulari betaurrekoak eta hortzetako aparatua jarri zizkioten.

Hemen zerbait ez dabil ongi...

Paula adi zegoen beti. Arretaz begiratzen zion guztiari.

Egun batean, ikusi zuen zenbait haurrek iseka egiten ziotela Anya ikaskideari. Burlak areagotzen ari ziren, eta Anya oso triste zegoen. Paulak bazekien zerbait egin behar zuela.


Nahikoa da! Utzi lasai Anya. Ez dut nahi hura zirikatzea gehiagotan.

Paulak Anya defendatu zuen zirika ez zezaten, eta haurrak biei iseka egiten hasi ziren. Baina Paulak bazekien ongi jokatu zuela eta Anya babestuta sentitzen zela.

Paulak eta Anyak denbora luzea ematen zuten elkarrekin. Eta Alainek ere defendatzen zituen. Bazekiten taldea osatuta indartsuagoak zirela. Ezin ziren isildu eta Anya bakarrik utzi.








Urteak igaro ziren, eta Paula beti egon zen Anyaren ondoan, hari lagunduz eta animatuz, inork iseka egin ez ziezaion. Alainek ere bat egin zuen haiekin, eta talde paregabea osatu zuten.





Horrela lortu zuten Anyak bullyinga atzean uztea, pixkanaka hura gainditua, eta berriz irribarre egitea. Irakasleekin hitz egin zuten, eta haiek ere lagundu nahi izan zuten. Norabide berean lan eginez, lortu zutenAnyak ikasketak lasai egitea eta berriro zoriontsu sentitzea.



Orain, Anyaren ametsa irakasle izatea da, haurrei maitasunez irakasteko eta horietako batek ere ez jasateko berak bizi izandakoa.

Denbora igaro ahala, nork bere bidea egin zuen.

Alain Madrilera joan zen unibertsitatean matematika ikastera

Paula Iruñean geratu zen eta gimnasioko monitore aritzen zen, jendeari haren burua zaintzen lagundu nahian. Pertsonei hobeki sentitzen lagundu nahi zien.

Hasieran elkarri idazten bazioten ere, urteen poderioz harremana galduz joan ziren

Badakit nola lagundu jendeari. Foruzaina izan nahi dut!

Errutina, eskola, ordutegi, neke eta abarrez bete zitzaien bizitza, harik eta, egun batean, Paulak haurtzaroko ametsa betetzea erabaki zuen arte.



Atsedenik gabe ikasi zuen. Goiz jaikitzen zen, lantokira joan aurretik korrika egiteko.






Gai zerrendak errepasatzen zituen goizaldera arte, eta inoiz ez zuen amore eman.



Harik eta, egun batean, bere izena ikusi zuen arte hautaprobak gainditu zituztenen zerrendan. Bihotzak hain azkar egiten zituen taupadak, non ematen baitzuen bularretik irtengo zitzaiola.





Paula Prebentziorako eta Herritarren Arretarako Dibisioan sartu zen; dibisio horrek kaleak patruilatzen ditu, pertsonei laguntzen die eta gerturatzen lehena da norbaitek laguntza behar duenean.









Egun bakoitza desberdina zen: batzuetan, pertsona bati laguntzen zion autoa matxuratuta zuela; galdutako haurrak lasaitzen zituen beste batzuetan, edo auzokideen arteko arazoren bat konpontzen laguntzen zuen.

Entzutea eta jendearengandik hurbil egotea gustatzen zitzaion;






Eta, batez ere, zerbait garrantzitsuaren parte zela sentitzea: herritarrak babestea eta zerbitzatzea.



Bitartean, Alainek Madrilen amaitu zuen bere karrera, eta Iruñera itzuli zen lanean hasteko.

Denbora luzea igaro zen, baina Paularekiko haurtzaroko jolasak gogoratzen zituen artean.





Pisu txiki batean kokatu zen, Iruñeko Alde Zaharrean. Dena ongi zihoan, baina gau euritsu batean,

Etxeko atea irekitakoan, zerbait arraroa nabaritu zuen. Sarraila indarrez irekita zegoen. Egongela nahasita. Tiraderak irekita.





Familiaren bitxiak, amatxik herentzian utzi zizkionak, desagertuak zeuden.















Segundo batzuetan elkarri begiratu zioten, jakin gabe barre edo negar egin behar zuten. Patuak berriro elkartu zituen, ezusteko moduan.





Handik gutxira, foruzain gehiago iritsi ziren.



Lehenik eta behin, Polizia Zientifikoaren Dibisioa: pistak, aztarnak eta abar bilatzen ditu, bere kamera, linterna eta maletatxoen laguntzarekin.







Polizia Judizialaren Dibisioa ere iritsi zen, delituak ikertzen dituena, hain zuzen.





Dibisio hori arduratzen da pistak aztertzeaz, segurtasun kamerak berrikusteaz eta delituen balizko lekukoekin hitz egiteaz.


Dibisio bakoitzak bere funtzioa du. Polizia Zientifikoaren Dibisioak frogak bilatzen ditu, Polizia Judizialaren Dibisioak ikertzen du... eta Prebentziorako eta Herritarren Arretarako Dibisioa lehena da gerturatzen eta jendea zaintzen. Talde bat gara.
Inoiz ez nuen pentsatu zenbat gauza egiten dituzuen. Sinestezina da, Paula
Egun batzuk igaro ziren
POLICIA FORAL
Goiz batean, Paula txosten batzuk aztertzen ari zen, eta bat-batean, dei bat jaso zuen: Polizia Judizialaren Dibisioa zen, bitxien lapurreta ikertzen ari zen hori.
Sanz foruzaina, berriak ditugu. Hatz aztarnei eta kamerei esker, ustezko lapurra identifikatu dugu. Bitxiak bigarren eskuko denda batean saltzen saiatu da.
Bikain! Goazen hara!

Bere taldeak bitxiak aurkitu eta erantzulea atxilotu zuen.



Laborategiak baieztatu zuen hatz aztarnak berberak zirela.





Arratsalde hartan, Paula Alainen etxera joan zen irribarre bat ahoan eta eskuan poltsa txiki bat zuela.







Egun hartatik aurrera, Paula eta Alain maiz elkartzen hasi ziren.



Igandeetan kafea hartzen zuten, haurtzaroko jolasak gogoratzen zituzten eta barre egiten zuten patuak berriro elkartu zituelako.






Paulak kaleak patruilatzen jarraitzen zuen, harrotasunez eta pasioz.

Logikak eta adiskidetasunak ere misterioak ebazten dituzte







Alainek matematika eskolak ematen zituen, eta, noizean behin, anekdotak kontatzen zizkien ikasleei.




Eta Paulak bere patruila autoa parke baten aurrean aparkatzen zuenean, batzuetan hauxe pentsatzen zuen:









Policía Foral

Foruzaingoa



NAVARRA ⋮ NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua